

Haur literaturaren munduko biltzarra hasiko da gaur

Galtzagorri elkarteak parte hartuko du ' Gutxiengoen indarra ' lelopean Galizian antolatutako batzarrean

Haur eta gazte literaturako nazioarteko profesional eta aditu ugari bilduko dira gaurtik igandera bitarte Santiagon (Galizia), Gazteentzako Liburuen Nazioarteko Elkarteak (IBBY) Gutxiengoen indarra lelopean antolatu duen nazioarteko 32. kongresuan. Euskarazko haur eta gazte literaturako hainbat aditu, idazle eta ilustratzailek parte hartuko dute biltzarrean, tartean, Mariasun Landak, Xabier Etxanizek, Marijo Olaziregik, Itziar Zubizarretak, Xabier Olarrak, Juan Kruz Igerabidek eta Belen Lucasek. Asun Agiriano Galtzagorri elkarteak lehendakaria ere Santiagon izango da.

Bost egunetan haur eta gazte literaturari lotutako askotariko gaiak izango dituzte hizpide nazioarteko adituek hitzaldi, tailer eta mahai-inguruetan. Hizkuntz eta kultur gutxiengoek sortutako literatura, ahozketasuna, irakurzaletasuna sustatzearen erronka, generoa, irakurle etorkinak, behar bereziak dituztenen irakurketa, komikia, poesia, ilustrazioa eta beste gai ugari landuko dituzte, taldeka. Ostiralean, Neskak: gutxiengoa edo gehiengoa? izenburupeko mahai-inguruan mintzatuko da Mariasun Landa. Victoria Fernandez espainiarrak eta Devika Rangachari indiarrek parte hartuko dute mahai-inguru berean, eta Julinda Abu-Nasr libanoarrak koordinatuko du hizlarien jarduna.

Besteak beste, Argentina, Mexiko, AEB, Kolonbia, Hegoafrika, India, Brasil, Palestina, Afganistan, Uganda, Australia, Frantzia, Portugal, Espainia, Nepal, Erresuma Batua, Guatemala, Hego Korea eta Venezuelako adituak mintzatuko dira mintegietan.

Zurichen sortu zen IBBY elkarteak, 1953an, eta 60tik gora ordezkariak osatzen dute -Galtzagorri elkarteak da IBBYren euskal adarra-. Gazteak liburutara hurbiltzea eta liburuen bidez "nazioarteko elkar ulertzea" sustatzea ditu xede elkarteak. Baita haur eta gazteekin eta haientzako liburuarekin lan egiten duten profesionalen laguntza eta prestakuntza ematea ere.

Bestalde, YBBYren munduko batzarra egiten den aldi berean OEPLI Haur eta Gazteentzako Liburuen Espainiako Elkarteak antolatutako erakusketa izango da ikusgai Santiagon. Euskarazko haur eta gazte literaturako sei idazle eta zortzi ilustratzailearen lanak jarriko dituzte, besteren artean.